

"50 años de Pintura Vasca"

(1885 - 1935)

San Telmon, 1972'ko urtarrilean eta otsailean izan dugu erakusketa eder hau ikusteko aukera.

Erakusketa zoragarri hau ongi goratu zuen J. Intxaustik otsailaren bateko «Hoja del Lunes»-eko (Donostiakoan) euskarazko orrian, baina hala ere neronek egin nuen bisitatik atera nituen gogoetak laburki emango ditut.

Erakusketa ikusgarria benetan «50 Años de Pintura Vasca» (1885-1935) dalakoa, Donostiako San Telmon jarri zigutena. Urte askoan hainbeste eztabaida sortu zuen «euskal eskola»'ren ageri ederra benetan. Baina eskola berezi baten ageri zehatza ote?

San Telmon bildu zituzten mende honen lehen parteko euskal pintoreen lanak, erakusketaren izenburuak zion bezala. Hala ere, ene ustez, garai berekoak izateak ez du esan nahi eskola berekoak zirenik. Honetarako barne-gogozko kezka berdintsua behar da, eta honetatik sortzen den elkarrekiko ekintzak kideko oinharri batzutatik jakineko helburuetarantz eramanez lan egiteak egiten du eskola berezi bat.

Eskola hori bazen, dudarik gabe, gai eta estetika jakin batzuen kezka araberez. Bere aztertzaile eta kritikoak ere bazituen, Juan de la Encina nagusi zelarik. Eskola horrek inguratzen zuen ardatzcan maixurik berezienak, lehen aldiko Regoyos eta Guiard alde batera utzirik, Arteta, Etxebarria, R. Arrue, Iturrino, Tellaetxe, eta besteren batek girotzen zuen inguru berezia.

Hoiekin batean, zerbait gazteago ziren J. Olasagasti eta J. Aranoa, San Telmon hutsune nabarmena agertzen zutenak (hala ere, salgai jarri zuten katalogoan arkitzen ziran behinipehin, hain ongi errepresentatuak ez zeuden ere). Vázquez Díaz bera ere ez zen gaizki etorriko erakusketa horretara, zeren hura ere giro honek kutsatu zuenez, geroago bere gisarako geometriazko joeraz pintura planuzko eraz erabiltzeaz hartu zuen berezitasuna eta ospea, noski.

Mendearen lehen partetik Bilbon girotu zen eskolak bere frutu onurakorrak eman zituen. Postinpresionismoan oinarriturik ere, ondorerako giro berezi bat sortu zuen Euskal Herrian. Gaur, oraindik ere, gure plastikaren estetikan itsatsia duguna.

Eta euskal arte honetaz jardutzean ez dut aipatu nahi euskal gaiak soilik pintatzen zituztenak bakarrik, ez; baizik estiluzko joeretan kidetasunak zaindu zituztenak bereziki, era hortako pinturagintzan saiatu zirenak. Hain zuzen, eskola honek, Arteta buru zelarik, etnografia gaiak atzean utzi zituen sozial gaietan gehiago sartzeko. Zeren, San Telmoko erakusketa ikusita, argi dago bi zatitan banantzen zirela: inpresionismoaren ondorenez jabeturik pintatu zutenak, eta hortik aparteko era modernista edo klasiku zaharren bidez jarraitzen zituztenak. Azken hauen arteko, Maeztu, A. Arrue, Zuloaga, Salaberria eta abar. Hauk nonbait ez zuten inoiz konprenitu mugimendu berriaren sorketazko grina.

Eskola berriak argi berria eta teknika berezia nabari ditu; maixu nagusiak, Etxebarria bere kolorez eta lehen psikologiku erretratu gintzan, eta Arteta bere gai indartsuen bidez konposizioz eta lerroz ondo horniturik, eta batez ere argien alde-contrak, alternantziak, Puvís de Chabannes eta Cézanne-ren oroitzak dakarzki. Joera hauek hain bizi erabiltzeaz du Artetak bere nortasun handia. Dohain hauegatik. A. Valverde zenak oso ongi zion: «Arteta dugu gure eskolaren habe sendoena».

Artetak eta Etxebarriak, Regoyos-engandik eta Paris-tik har zituzten beren erroak gure herrian ondo sustraitu zituzten.

Artea maite zuenak, eta euskal eskola zer zen jakin nahi zuenak, bazuen zer ikusi, zer pentsa eta zer dastatu erakusketa bikain haretan.

Juan SAN MARTIN.